

» TELEGRAMA

Rosa Fascismo, Architettura transgender argazki-erakusketa inauguratuko dute Bilboko Bihotz Cafen urtarrilaren 29an **STOP Lurrazpiko Festa** hemen da: urtarrilaren 29an eta 30ean Kokoschca, Hidrogenesse, Joseba Irazoki... 21 artista Gazteszena aretoan eta Dabadaban (Donostia) **STOP Heroiak** zahar etxean dauden hiru gerra beteranoren inguruko antzezlan da. Urtarrilaren 30ean Donostiako Antzoki Zaharrean **STOP Uztaritzeko Hartzaro Festibalaren** 2016ko edizioa otsailaren 3an hasiko da: musika, dantza eta festa denen gusturako otsailaren 9ra bitartean **STOP**

» MUSIKA

Maurice Ravel zoragarria



Montse Auzmendi

Fauré eta Ravelen obrak

EUSKADIKO ORKESTRA SINFONIKOA

Zuzendaria: Jun Märkl
Piano-jotzailea: Ingrid Fliter
Gasteizko Principal Antzokia
Urtarrilaren 14a

Maurice Ravel musikagilea
(Ziburu, 1875 - Paris, 1937)



Ez dakit aldi honetako Maurice Ravelen interpretazioa onena izan den, baina beti da plazer bat Ziburuko maisuaren musika entzutea. Ravelen modernitatea bere garaiko estilotik haratago doa. Impresionismoaren iturrietatik eraikitzen du bere teknika konpositiboa baina ez da impresionisten eredu, edo eredu purua. Jazza, floklore, klasizismoa, denetatik hartzen du zerbait, eta musika berezia egiten du, berea benetan. Orkestrazio distiratsua, imajinazioa, tinbriak berezia... hauexek eta gehiago dira Ravelen ezaugarriak.

Euskadiko Orkestra Sinfonikoak ia monografiko bat eskaini zuen hilabete honetako abonu kontzertuan, eder-ederra, nahiz eta behar den ñabardura-aberastasuna ez agertu. Hasteko, Ravelen munduan buru-belarri sartu baino

lehen, Gabriel Fauréren *Pavane op. 50* jo zuten Euskadiko Orkestrakoek, dotore-dotore. Beste gauza bat izan zen hurrengo obra, Ziburukoaren *Piano eta Orkestrarako sol maiorreko kontzertua*. Lan famatu eta kanporakoi hau interpretatzeko Ingrid Fliter pianista argentinarra izan genuen bakarlarri gisa. Musikari gogorra eta entrenatua da Fliter andrea. Oso go-

gorra. Dударik ez, baduela taxua eta indarra jotzerakoan, baina sotiltasunik ez. Eta, sentitzen dugu, baina ezin da Ravel interpretatu nota guztiak joaz bakarrik. Haren mundua ulertu eta transmititu behar da eta, alde horretatik ez genuen ezer sumatu Fliter andrearengan. Perkutitu egiten ditu notak, etengabe. Teknika sendoaren erakustaldia egiten du (teknika errefinatuarena ez), baina hori ez da nahikoa musika honen estilo bereziaren bertsio partikular bat egiteko. Gauza bat da norberaren nortasunaren ukitua ematea musikari, eta beste bat dena berdin-berdin jotzea norberaren "jotzeko era" aitzakiatzat jarriz.

Ingrid Fliter piano joleak sari eta errekonozimendu ugari ditu, eta badaki ongi jotzen pianoa, baina beste erreperitorio mota batean agian hobeto sentituko da, impresionismoaren ñabarduren mundu estilistikoan ez da gauza. Propina gisa, orkestrarekin batera Joseph Haydnen obratxo bat eskaini zuen: *Rondo hungariarra*, aurrekoa bezain perkutitua. Haydn ere, ez da bere *cup of tea*. Franck Liszt bat edo, hobeto, Sergei Prokofiev bat eginez gustatuko litzaidake Fliter entzutea, ea horretan hobeto moldatzen den.

Saioaren bigarren zatian, *Daphnis et Chloé* balleta eskaini zuen orkestrak. Lehen aldiz interpretaturiko lan eder hau ongi matizatua atera zen, nahiz eta Principal Antzokiko deabruko akustikak nolabait hondatu. Halere, oso ongi. ■